



Izenburua	HEZHIZ: HIZkuntza HEZiketarako dinamizazioak
Egilea	Jaime Altuna
Data	2010/04/21

aurkibidea

aurkibidea.....	2
1. Sarrera.....	4
2. Zergatik HezHiz? Udal baten ikuspegia.....	4
2.1. Zergatik gazteak?.....	5
2.2. Nola ordea?.....	5
2.3. Planteamendua.....	5
3. Zer da HezHiz?.....	6
3.1. Usteak eta gaitasunetan eragin erabilera handitzeko.....	6
3.2. Taldean eta motibazioan oinarritutako metodologia.....	8
3.3. Lantzen ditugun edukiak eta adibideak	8
4. Irten, pu(o)ztu, loditu.....	12

1. Sarrera

Kafea hustasunean edaten ari naiz. Inguruko jendeari begira nago. Guztiek ezin normalago dirudite. Inor ez daukat begira, inork ez dit hitz egiten. Ele zaharra bizirik dago. Ez da erabat armatua irteten irakasle militante baten ahotik. Ez du abeslari folkloriko batek artikulatzen. Ez da poesia. Ez da sorteriaren kontserbatorioa, ezta familien erlikiontzia ere. Axolagabeki ahotik ahora dabil. Ahoak ireki eta itxi. Kafe edaleak elkarri hizketan ari dira. Elkarri esateko gauzak dauzkate. Gauza horiek garraiatzen dituen jariora hara eta hona dabil, ematen du inor ez dela horretaz ohartu...irten, puztu, loditu... hizkuntza erabilgarria da.¹

Herria izeneko eleberrian idatzitako lerro hauen bidez euskararen normalizazioan helburua zein den irudikatu dezakegu: **hizkuntza erabilgarria izatea**. Istorio horretako tabernan bezala, guk ere, inguruko taberna eta beste toki guztietan, *euskara ahotik ahora axolagabeki* ibiltzea nahiko genuke.

Garbi dugu, beraz, helmuga baina ez hain garbi iristeko bidea. Beharbada, bideak esatea egokiago litzateke. Izan ere, eleberriko lerro horietan aipatzen diren bideak ere beharrezkoak dira: irakasle militantearen bidea, abeslariaren bidea, poesiaren bidea, familiaren bidea...

Duela bi urte, bide berri bat urratzen hasi ginen. Beste modu batean ere esan daiteke: bidea egiteko tresna berri bat probatzen hasi ginen. Gaztetxoei bidea errazago egiteko baliabide berria eskaintzen hasi ginen: **HezHiz** izeneko programa.

Programa hau garatzeko ideia Debako Udalean sortu zenez, artikulu honen lehen zatian, Debako Euskara Teknikaria den Amaia Zinkunegik egitasmo hau burutzeko zer kontu, zer hausnarketa ibili ote zituzten buruan azalduko digu; hau da, nondik nora sortu zitzaizen jarduera honen beharra.

Jarraian, bide edo programa honen zehaztapen eta adibideekin batera nerabeen hizkuntza erabileraren inguruko hainbat hausnarketa egingo ditugu egitasmo honetan eta Urtxintxa Eskolan azken urteetan garatu ditugun beste programetan bizitako esperientziaren bidez.

2. Zergatik HezHiz? Udal baten ikuspegia²

Debako udalerrria oso zabala da lur eremuari dagokionean. Baserri gunee asko ditu eta horien eta erdi guneearen hizkuntza egoera ez dira inondik ere berdinak. Baserri guneeetan euskarari eusten diote oraindik, nahiz eta Itziarren egoera aldatzen ari ote den pentsatzen jarrita gauden. Egoera horri ere gertutik erreparatu beharko badiogu ere, ni, erdi guneez arituko naiz hemen.

¹ Herria. Marie Darrieussecq. Alberdania 2009.

² Atal hau Debako Udal Euskara Teknikaria den Amaia Zinkunegik idatzi du

2.1. Zergatik gazteak?

Deban, auzoan, kalean, lagunartean... euskaraz egiten den arren, erdara da nagusi. Bikote euskaldun askok erdaraz dihardu. Familian, euskara dakien kideren bat dagoen neurrian behintzat, transmisioa ziurtatua dagoela esan genezake. Hala da neurri handi batean. Adin batetik aurrera, ordea, guraso eta seme-alaben arteko harremanetan ere, erdara nagusitzen da. Euskaraz badakite eta egin ere egiten dute batzuetan, baina erdaraz errazago eta maizago aritzen dira.

Egoera horri aurre hartu nahian, lehentasunezkotzat jotzen dugu bikoteak sortu aurretik, gazteengan eragitea eta **erdarazko mintza jardunetik euskarazkora pasatzea**:

- 1) Lagunartean eta kalean euskaraz egiteko benetako aukerabidea izan dezakeen belaunaldia da (12-28 urte bitarteko Debako gazteek D erduan egin dituzte oinarriko ikasketak. Salbuespen dira azken urteetan herriratutako etorri berriak). Hala eginez gero, erreferente bilakatuko lirake atzetik datozenentzat.
- 2) Lagunarteko hizkuntza euskara izanda, errazago izango da sortzen diren bikoteen harreman-hizkuntza euskara izatea. Horrek ez du esan nahi beti hala izango denik, baina ez dirudi burugabekeria, esatea, errazago izango dela.
- 3) Egunen batean seme-alabak izatea erabakitzen badute, familiako hizkuntza euskara izateko aukera gehiago egongo da, eta horrek arnasa emango dio euskarari.

2.2. Nola ordea?

Bide berri bat, guretzat berria, ireki nahi genuen eta esploratu: **hausnarketaren bidea**. Lehendik ere baziren martxan zenbait proiektu eta saio: *kuadrillategi*, *goza nazazu gehiago*, gazte hizkera lantzeko tailerrak,... Baina zerbait sakonagoa, aztarna handiagoa lagako zuena behar genuela iruditzen zitzaigun. Norbanakoaren bizipenetatik abiatuta, euskararen gaineko aurreiritziak, jarrerak, usteak,... lantzeko.

Portaerak (hizkuntza portaerak ere bai), ikasiak dira, batez ere gurasoengandik; eta gehienetan automatikoak, inkontzientek. **Portaera horien atzean edo azpian dauden sinesmenak, emozioak... aztertu behar direla uste dugu, horiek ulertzeko eta integartzeko**. Kontziente izatea lortu behar dugu, nola egiten dugun, zer egiten dugun, zergatik,... eta horiek arrazoitu edo zalantzan jarri, argudiatu... Behin hori guztia eginda, beharrezko ajusteari egitea (euskararekiko jarrera positibo eta aktiboak hartzea) errazago izango dela uste dugu.

2.3. Planteamendua

Gazteak irudikatzean 12tik 30 urtera bitarteko neska-mutilak geneuzkan buruan. Guztiak ere ezaugarri komun batekin: denbora libre gutxi. Eskolaz kanpo horrelako zerbait planteatzeak izan zitezkeen zailtasunez ohartuta, eta 12-16 urtekoak herriko eskolan geneuzkala aprobetxatuz, zatitu egin genituen: 12-16 urtekoak batetik eta 17-30 urtekoak bestetik.

Zaharrenekin urtebeteko proiektua garatu genuen Elhuyarren laguntzarekin. Hilabetean behin eraldatze prozesu bat bizi ondoren, komunikazio plan bat diseinatu eta burutzeko eskatu genien (Udalaren laguntzarekin baina era autonomoan). Gazteak eragile aktibo bihurtzea genuen helburu. Herrian dezenteko oihartzuna izan zuen kanpainak. Gaur egun harremanetan jarraitzen dugu eta pare bat proiektu lantzeko asmotan gabilta.

Gazteenekin beste planteamendu bat egin genuen. Herriko eskolan geneuzkan, esan bezala. Eskola inplikaturik, proiektua, DBH osora zabaltzeko aukera genuen. Eta horrek, lehen aipatutako jarraipena

eta sendotasuna ematen zion proiektuari. Eskolan, gainera, neska-mutil guztiak harrapatzen genituen (aldeko zein kontrako jarrera duten guztiak). Ikasgai modura hartzeko arriskua ere begi bistakoa zen baina hezitzaile eta metodologia egokiekin gainditzeko modukoa iruditzen zitzaigun. Eta inportanteena dena, kontu horiek guztiak lantzeko material ezin aproposagoa geneukan eskura: *“Ahal izatetik nahi izatera”*³ materiala. Gerora, Urtxintxa Eskolak, material hori egokitu, osatu eta aberastu egin du izugarriko lana eginez eta **HezHiz** izeneko egitasmo hau sortuz.

Aurten bigarren urtea dugu proiektuarekin; beraz, goiz samar izan daiteke oraindik ondorio argiak ateratzeko eta lan modu honek zer eman dezakeen ikusteko. Baina helburua bezain garrantzitsua izaten da egindako bidea eta, bidean goazela, oso ondo baloratzen dugu orain arte egindakoa; baita irakasleek, hezitzaileak eta ikasleek beraiek ere.

Konbentzitura gaude bide hau jorratu beharrekoa dela. Are gehiago, irakaskuntza prozesu osoan landu beharrekoa dela. Txiki-txikitik hasi eta derrigorrezko ikasketak amaitu arte. Propio hizkuntzez hausnartzeko materiala (ipuinak, kantuek, jolasak, antzerkiak,...) sortuz eta landuz, sakon baina ez pisu, alai eta samur, dibertimenduaren bidez, euskara, identitate ikur eta harrotasun iturri izan dadin.

3. Zer da HezHiz?

HezHiz erabilera sustatzeko hizkuntzarekiko jarreraren lanketa egiteko programa bat da. Hizkuntza bat erabiltzeko ahozko eta idatzizko trebezia eskuratzea ez da aski. Hizkuntzaren ezagutza ezinbesteko baldintza da baina ez da nahikoa. Hizkuntza-erabileran eragiten duten faktore, arau eta jarrerez kontzientzia hartzea garrantzitsua da. Horregatik, nerabeen artean euskararen erabilera handitzea bilatzen badugu, heziketa linguistikoa eta soziolinguistikoa jorratzea bide egokia eta beharrezkoa iruditzen zaigu. HezHiz programarekin hori da bilatzen duguna: euskararen erabileran eragitea hizkuntzaren inguruko hausnarketaren bidez.

Programa, 2008-2009 ikasturtean Debako Mendata Institutuko 60 gazterekin garatzen hasi ginen. Lehen ikasturte horretan DBH-ko lehen mailako ikasleekin ordubeteko 15 saio dinamizatu genituen. Emaitzak positiboak izan zirenez 2009-2010 ikasturtean gaztetxo horiekin programaren jarraipena egiteaz gain, lehen mailako ikasle berriekin HezHiz garatzen ari gara. Horretaz gain, ikasturte honetan Ordiziako Institutuko eta Ikastolako lehen mailako ikasle guztiak programa jasotzen hasi dira.

3.1. Usteak eta gaitasunetan eragin erabilera handitzeko

Hizkuntza heziketarako programa honen lehen xedea hizkuntzarekiko jarrerak, balioak eta arau sozialak jorratuz euskara erabiltzeko joera lantzea da. Horretarako gaztetxoek hizkuntzarekiko dituzten usteak lantzen saiatzen gara. Robert Dilts-en⁴ ereduaren arabera, ez da nahikoa lortu nahi diren jokabide-aldaketak definitzea. Goragoko maila neurologikoetan ere eragin beharra dago: gaitasunetan eta, batez ere, usteetan. Usteek gaitasunak hautatzen dituzte, eta gaitasunek jokabideak, eta horiek, era berean, ingurunea eraikitzen dute.

Euskararen normalizazioan, ordea, ez gaude usteetan eragiteko plangintzetan oso ohituak. Gehienetan jokabideen aldaketak bilatzen ditugu, askotan, jokabide aldaketak egin dituzten pertsona horiek euskararekiko dituzten iritziak kontuan hartu gabe.

³ “Ahal izatetik nahi izatera”: Julen Arexolaleiba, Nekane Arratibel, Iñaki Garcia, Karmele Pérez. MUko HUHEZI fakultatea. 2002ko urtarrila”

⁴ Alex Mungia-k eta xavier Elortza-k idatzitako “Transmisioa indartzeko programa pilotua Buruntzaldean” artikuluan Robert Dilts-en Programazio Neurolinguistikoaren arloan egindako lana azaltzen dute (<http://www.euskara.euskadi.net>)

Oso ohikoa da, adibidez, haur eta gazteei euskaraz hitz egin behar dutenaren “aholkua” ematea. Baina, batzuetan, nerabeekin lanean aritzen den hezitzaile euskaltzale honi gertatu zitzaion egoerak agertzen dira: jangela ondorengo ordu librean erdaraz ari ziren gaztetxoengana hurbildu eta euskaraz egiteko esan zien. “Zergatik?” galdetu zion neska horietako batek. Hezitzailearen bat-bateko erantzuna oso logikoa zen “Gure hizkuntza delako”. Nerabearena ere oso logikoa izan zen “Nirea ez!”.

Hau da, neska horren iritziz, euskaraz jakin arren, euskara ez da bere hizkuntza. Beraz, euskaraz hitz egiteko beste arrazoi batzuk beharko ditu, bere usteen arabera. Izan ere, Dilts-en arabera, gure usteek eragin izugarria dute gure jokabideetan; motibatu egiten gaituzte eta moldatu egiten dituzte gure jokabideak. Gainera, usteak dira gure bizitzaren gidari; egonkortasuna eta jarraitutasuna ematen digute.

HezHiz programako saioretan ikasleek hizkuntzarekiko dituzten usteei buruz hausnartzen dute. Hori egiteko, heziketa linguistikoa eta soziolinguistikoa jasotzen dute. Hizkuntza aniztasuna edo hizkuntz nortasuna moduko gaien bidez, gaztetxoek hausnartzea eta iritzia azalaraztea bilatzen dugu.

1. adibidea: Hizkuntza erraz eta zailen inguruan hitz egiten badugu, gai honi buruz dituzten iritzia, usteak eta zalantzak azalarazten saiatzen gara hainbat irudi eta galderen bidez. Hona hemen horietako bat:

Haurtxo hauen artean nork ikasiko du lehenago bere ama hizkuntza hitz egiten? Eta nor izango da azkena?



gogoeta eginez lehen hizkuntza edozein delarik ere, munduko hizkuntza guztietako hiztunentzat hizkuntza zailik ez dagoela ondorioztatzen.

Honekin batera, HezHiz programan **hizkuntzaren alderdi ludikoa landu nahi dugu sormena euskaraz bideratuz**. Usteetan eragiteaz gain gaitasunetan eragin nahi dugu. Euskararen erabilera areagotzeko egoera eta erregistro ezberdinetarako gaitasuna behar da. Gaitasun hori lortzeko sormena eta hizkuntzaren alderdi estetiko eta ludikoa lantzeak garrantzi handia du.

Izan ere, hainbat ikerketek agerian utzi duten bezala, ezagutza maila “oso handia” dutenek gehiago erabiltzen dute ezagutza maila “handia” dutenek baino. Pasaian, Maite Otegik egindako “Pasaiaiko gazteen hizkuntza jokaerak” ikerketaren emaitzetan, adibidez, hauxe aipatzen zen: “erabiltzeko gaitasun oso handia behar da, gaitasun handia ez da nahikoa. Euskaraz dakien gero eta gazte gehiago dago baina euskara ezer ez egitetik zerbait egitera pasatzen dira. Ez dira beti euskaraz egitera pasatzen”.⁵

Urtxintxa Eskolan gazteei zuzendutako programa guztietan alderdi honi garrantzia ematen diogu. Horregatik azken hamar urteetan hainbat argitalpen (99 *piropo poltsikorako, gazte hizkerarekin jolasean...*) eta programa (*Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean, piropo lehiaketak...*) jorratu ditugu gazteen artean hizkuntza ez formalaren gaitasuna garatzeko. Horregatik, HezHiz programan gaitasunaren alderdiari ere erreparatzen diogu eta tarteka gaztetxoei hizkuntzarekin jolasteko proposamenak luzatzen dizkiegu: abestiak, komikiak, aldizkariak, hizkuntz jolasak, bideoak...

⁵ Pasaiaiko Gazteen Hizkuntza Jokaerak Ikerketa Soziolinguistikokoaren zabalpenerako Materialak – Soziolinguistika Klusterra, Urtxintxa Eskola eta pasaiaiko udala.

2. adibidea: musika askotan erabiltzen dugun tresna da. Batzuetan, euskarazko abestiak dira, besteetan, hain ohikoak egiten ez zaizkigun hizkuntzetako abestiak: wolof, portugesa, katalana... Abestiak entzun eta kantatzearekin batera hainbat proposamen egiten dira: hitz berriak sortu, beste hizkuntzetan abestu, hitzaren esanahiari buruz hausnartu...

3.2. Taldean eta motibazioan oinarritutako metodologia

Aipatutako adibideetan ikus daitekeen bezala saioen erakargarritasuna bilatzen dugu talde dinamikan eta guztion parte hartzean oinarrituz. Denon parte hartzearen bidez norberaren eta taldearen hausnarketak bilatzen ditugu. Talde dinamikaren bidez taldekideak gustura eta eroso sentiarazten bilatzen dugu ahalik eta gogoeta gehien egiteko. Horretarako, nagusiki, bi **talde dinamika** mota (girote teknikak eta azterketa teknikak) eta hainbat **motibazio estrategia** erabiltzen ditugu

Azterketa tekniken bidez, hainbat eduki lantzeaz gain, taldekide guztiek hausnarketa egitera bultzatu nahi ditugu. **Girote tekniken** bidez hizkuntzaren alderdi ludikoa lantzeaz gain, honelako heziketa prozesu batean **motibaziorako** behar diren talde baldintza egokiak bermatzea bilatzen dugu.

Dinamizazio hauek DBH-ko gazteentzat prestatu ditugu. Oraingoan, lehen eta bigarren mailako ikasleekin jorratu ditugu baina datozen bi urteetan hirugarren eta laugarren mailako gazteekin landuko ditugu. Gure asmoa 12 eta 16 urte bitarteko gazteekin gaia lantzeko materiala prestatzea da.

Saio hauen prestakuntzaz eta dinamizazioaz Urtxintxa Eskolako Soziolinguistika Arloko hezitzaileak arduratzen dira. Hezitzaileak haur eta gazteen programen dinamizazioetan esperientzia izateaz gain, soziolinguistikan eta hizkuntzen inguruko gaien irakaskuntzan esperientzia du. Horrez gain, saio guztien materiala idatziz eskaintzen diegu parte hartzen duten ikastetxeei. Hau da, erabiltzen diren dinamiken azalpen zehatzak eta eduki guztiak idatzitako fitxen bidez banatzen diegu irakasleei. Izan ere, materiala edozein irakaslek bere gelan lantzeko modukoa izatea nahi dugu.

Oraingoan, bi modulutan banatutako 30 orduko dinamizazioak prest dauzkagu. Gure helburua 60 ordu prestatzea da. Horrela 15 orduko lau modulu prest edukiko genituzke, DBH-ko maila bakoitzeko modulu bat. Dinamizazioak ikasturte osoan egiten dira, normalean tutoretza orduetan. Hamabostean behin ordubeteko saioa egiten da.

3.3. Lantzen ditugun edukiak eta adibideak

Aurretik aipatu dugun bezala programa honen edukiak Ulibarri programarako sortutako "*Ahal izatetik nahi izatera*"³ ikasmaterialean oinarritzen dira. Fitxa- bilduma horretako hainbat ariketa eta eduki erabili ditugu oinarritzko materiala diseinatzeko. Fitxa-bilduma honetan hiru multzotan sailkatutako 58 jarduera proposatzen dituzte ikasgelan lantzeko:

1. Balio, jarrera eta aurreiritziak (orokorrak eta linguistikoak): Lehen multzo honetan jarrera, aurreiritzi eta balio kontzeptuen esanahiaz gogoeta egiteko aukera eskaintzen dute. Horretarako, kontzeptu hauen definizioa eta ezaugarriak lantzearekin batera, hainbat adibide lantzen dira: gizarte balioak, jarrerak, sexuak, hiztun eta kultura aurreiritziak...

2. Aurreiritzi linguistikoak, interlinguistikoak eta intralinguistikoak: Jarrera linguistiko kaltegarri nagusien azterketa egiten da hizkuntzen arteko aurreiritziak eta hizkuntza beraren baitakoak landuz.

3. Hizkuntzaren, hizkuntza-komunitatearen eta hiztunen arteko osagarritasuna: Azken multzo honetan, aurreiritzien baitan gutxiesten diren agenteak hiru multzoetara ekartzen dituzte (hiztunak, hizkuntza komunitatea eta hizkuntza) horien arteko osagarritasunak landuz.

Bilduma honekin batera, Gipuzkoako Urtxintxa Eskolak azken urteetan landu eta prestatutako materiala (edukiak eta metodologia) erabili da HezHiz programaren edukiak osatzeko eta hainbat jarduera berri proposatzeko: Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean, Hizkuntz jolasak, Hizkuntzaren motibaziorako tresnak, Soziolinguistika aisialdirako...

Azkenik, Iñaki Eizmendirekin (Ebate) elkarlanean ari gara bi erakundeetan gai honi buruz orain arte landu ditugun edukiak konpartitzeko. Izan ere, Ebete, antzeko programa bat garatzen ari da Arizmendi Ikastolan⁶.


HezHiz programarako, beraz, lau multzo bereizi ditugu landu nahi ditugun kontzeptuak jorratzeko:

1. Aurreiritzi (inter)linguistikoak eta hizkuntza aniztasuna
2. Euskararen aurreiritziak eta antidotoa
3. Euskara eta euskal kultura
4. Erabileraren zailtasunak, aukerak eta tresnak

1. Aurreiritzi (inter)linguistikoak eta hizkuntza aniztasuna

Lehen multzo honetan gizartean oso zabaldurik dauden iritzi soziolinguistikoetan barrenako ibilbide kritikoa egin dezaten proposatzen diegu. Transmittitu nahi dugun mezua nagusia hizkuntza eta hiztun guztiak berdina direla eta batzuk besteen gainetik ezartzea ez dela bidezkoa. Hausnarketa hauek egiten laguntzeko munduko beste hizkuntzen inguruko informazioa lantzen dugu hainbat dinamika ludikoen bidez: Europako hizkuntzen familien jolasa, abestiak beste hizkuntzetan, agurrak munduko hainbat hizkuntzetan...

3. adibidea: Programa honen lehen saioa “Kinder arrautza” izeneko dinamika da. Denok ezagutzen dugu Kinder arrautza. Arrautza honen barruan agertzen den opariarekin batera idatzizko ohar bat agertzen da. Gaur egun, 38 hizkuntzatan dator idatzita. Hizkuntza bakoitzaren alboan ikur bat ere baduzu, esate baterako (E) Espainiako gaztelania dakarkiguna gogora. Hizkuntza guzti hauen zerrenda banatuta, lehen galdera hau lutzaten diegu gaztetxoei: Zenbat hizkuntza bereizteko gauza izango zinateke? Ondoren, hausnarketa egiteko beste galdera hauek egiten ditugu: Zenbat hizkuntza daude munduan? Zergatik daude hainbeste? Horietako zenbat agertzen dira Kinder arrautzan? Zergatik agertzen dira hizkuntza hauek? Kontsumo produktuetan zeren arabera egiten dute hizkuntzen aukeraketa? Zergatik ez da agertzen euskara? Beste produktuetan euskara agertzen al da? Saioa, noski, txokolatina jaten bukatzen dugu.




⁶ Bazara programa. Ebete eta Arizmendi Ikastola

2. Euskararen aurreiritziak eta antidotoa: gurea ona, baita besteena ere

Atal honen hasieran, aurreko multzoarekin lotura eginez, kultura ezberdinekiko aurreiritziak agerian jarri ondoren, horiei buruz gogoeta egiten dugu. Honekin, besteen kulturen edo hizkuntzen gainetik norberarena balioztatzean oinarritutako kulturaren edo hizkuntzaren defentsa zalantzan jartzea da. Gazteengan hizkuntzaren defentsarako jarrera sustatzea, oinarrian norberaren hizkuntza besteen parekoa dela eta besteek adina meritu dituela argi eta garbi utzirik. Atal honen bukaeran gazteek euskararen alderdi positiboan inguruan hausnartzen dute hirugarren multzoari begira.

4. adibidea: HezHiz programaren 15. dinamikak “Aurreiritzien munduko mapa” izena du. Dinamika honekin denok besteekiko aurreiritziak ditugula agerian utzi nahi dugu. Hau da, denok ditugu uste batzuk beste herrialde, kultura edo hizkuntza duten pertsonetikiko. Philipp Lensen⁷ izeneko internauta batek munduko aurreiritzien mapa osatu zuen interneten bildutako informazioarekin. Bertan, adibidez, japoniarrekin lotutako hitz hauek agertzen dira: teknologia, giza-legea, bizitza luzea, ez zuzenak. Gaztetxoekin Philipp Lensen-ek egin zuena egiten dugu. Sei herrialde aukeratzeko ditugu eta bakoitzak herrialde horiekin edo bertako biztanleekin lotutako hitzak idatziko ditu. Kultura ezberdinetako pertsonetikiko ikasleen iritzia jaso nahi da. Gehienez, bost hitz idatz daitezke. Ondoren, aurreiritziak biltzen ditugu eta gure aurreiritzien munduko mapa osatzen dugu. Mapa horren gainean hainbat hausnarketa egin ditugu.



3. Euskara eta euskal kultura

Multzo honen hasieran euskara hizkuntzari buruzko hainbat eduki lantzen ditugu: euskaren inguruan dakigunari buruz hausnartzea bilatzen dugu. Ondoren, gazteek euskara zerekin identifikatzen duten ikusi eta horri buruz hausnartzen dugu. Horrekin batera, euskal kulturaz zer ezagutzen duten ikustea eta gaur egun zer gauza ari diren sortzen ikustea bilatzen dugu, euskaraz edozer gauza eta nahi adina sortu daitekeela ikus dezaten. Atal honen helburu nagusia hizkuntzaren sormenarekiko interesa piztea da.

⁷ The Prejudice Map: <http://blogscoped.com/prejudice/map.gif>

5. adibidea: Euskara zerekin identifikatzen dugun aztertzeko bi dinamika klasiko erabiltzen ditugu. *Lehenengoan*, ikasle bakoitzak azken urtean bizi izan dituen bost esperientzia positiboak gogoratu behar ditu, edozein modutako esperientziak: lagunartean, ikasketekin, bidaiak... Esperientzia horiek zein diren ez dute talde handian esan behar. Egoera horiek identifikatu eta gero zein hizkuntzatan bizitutakoak diren galdetzen zaie. Zenbat euskaraz eta zenbat gaztelaniaz, eta beste hizkuntzaren bat agertzen den ere ikusten da. *Bigarren* dinamikan, hainbat irudi zein hizkuntzekin identifikatzen dituzten galdetzen zaie. Irudiek naturarekin, nekazaritzarekin, ikasketekin, musikarekin, teknologiarekin, kirolarekin, bidaiekin, eta abar. zeriak dute Ondoren, taldean komentatzen dira emaitzak.



4. Erabileraren zailtasunak, aukerak eta tresnak

Euskaraz gehiago egiteko zailtasunak identifikatzea eta aukerak aztertea da multzo honen lehen zatiaren xede nagusia. Horretarako, hizkuntzaren, hizkuntza-komunitatearen eta hiztunen arteko osagarritasuna azaltzen dugu. Bigarren zatian euskaraz gero eta gehiago egiteko eta horretan gustura aritzeko baliabideak eskaintzen ditugu. Erabileran aurrerapauso zehatzak ematea eta aurrera begira horretan jarraitzera animatzea bilatzen dugu.

6. adibidea: *Erronka proposamena egiten diegu. Euskaraz gehiago egiteko gai direla frogatuko dutela esaten diegu. Taldean euskaraz beti hitz egiten ez duten esparru bat aukeratu ondoren helburu bat jarri behar dute, ahalik eta zehatzena eta lorgarriena. Epe bat utzita denon artean balorazioa egiten dugu: Lortu al dute erronka? Zaila izan al da? Gustura aritu al dira?*

4. Irten, pu(o)ztu, loditu...

Elkarri esateko gauzak dauzkate. Gauza horiek garraiatzen dituen jarioa hara eta hona dabil, ematen du inor ez dela horretaz ohartu...irten, puztu, loditu...hizkuntza erabilgarria da.
Error: No se encuentra la fuente de referencia

Artikulu honen hasieran aipatutako testuarekin gogoratu, HezHiz izeneko bide berri honetan 2008ko azaroan abiatu ginen: **irten** ginen. Ikasturte horretan egitasmoa zena edukiz, hausnarketaz, iritziz, ustez...**puztu** genuen Debako 61 ikasleekin batera. Eta **poztu** ere, poztu ginen, ikasturte bukaeran iritzia idatziz eskatu eta gero balorazio positiboak zirela ikusi genuenean. Saioei buruzko iritzi orokorraz galdetuta gehienek oso ona (22 gaztek) edo ona (31 gaztek) dutela erantzun dute. Saioetan oso ongi (26 ikaslek) eta ongi (28 ikaslek) pasa dute eta gehien gustatu zaiena galdetuta egindako jolasak eta landutako kanta erantzun dute.

Ikastetxeko beste ikasleei programa honetan parte hartzea gomendatuko ote lieketeN galdetuta ia denek (4 ezik) baietz erantzun dute. Era berean, hurrengo ikasturtean saio hauen jarraipena egitea gustatuko litzaiekeela erantzun dute. *Ikasi al duzu?* galdetuta 36 gaztek asko eta 17 gaztek zertxobait ikasi dutela adierazi dute. *Zer ikasi duzu?* galderari denek erantzuna eman diote eta landutako edukiak barneratu dituztela dirudi.

Guk ere, Deban garatu dugun programa honen balorazio oso positiboa egin dugu. Orain arte, jarritako helburuak bete direla iruditzen zaigu eta ikasle eta tutoreen artean iritzi baikorrak jasotzeak egitasmoa ondo funtzionatu duela berrezten du.

Gaztetxoen usteetan eragiten hastea lortzen hasiak garela iruditzen zaigu, hizkuntzen eta euskararen inguruko kontzeptuak landuz. Usteetan eragiteaz gain, zeharka, gaitasunetan eragin nahi dugu. Horregatik saio guztietan hizkuntzarekin jolasteari tarte bat eskaini diogu jolasak, kanta eta beste dinamika batzuk erabiliz eta arrakasta handia izan dute.

Bigarren, ikasturte honetan, programa osatzen eta zabaltzen ari gara: **loditu**.Alde batetik, edukiak osatzen jarraitzen dugulako. Bestetik, gazte gehiagoengana iristen ari garelako, Debako eta Ordiziako 200 bat gazte parte hartzen ari dira. Beraz, bide hasiera honetan (irten, pu(o)ztu, loditu...) HezHiz programa erabilgarria izaten hasi da.

Udaltop lan-topaketa batzuk izan nahi dute. Helburu hori lortzen laguntzeko, ponentziak eskura jarri dira topaketak egin aurretik, nahikoa denbora izan dezan teknikari bakoitzak irakurtzeko, lantzeko eta hizlariari egingo lizkiokeen galderak prestatzeko. Jardunaldietan bertan, jadanik irakurriak egongo diren hitzaldiei adina tarte eman nahi zaie elkarriketarako eta hausnarketarako tarteei.

Idatzi hemen zure galdera (ez ahaztu web gunetik bideratu behar duzula).

Galdera:

Azalpena:



Jaime Altuna Ramírez
Gipuzkoako Urtxintxa Eskola
Mundaiz Bidea 8. 2.E · 20012 Donostia (Gipuzkoa)
T_ (+34) 943 270 033·
soziolinguistika@urtxintxa.org · www.urtxintxa.org · www.aisia.net